

BIZIKLETAN IBILTZEAGATIK ORDAINTZEA

Posted on 04/09/2015 by Naider



Lanera bizikletaz joateak bere abantailak ditu, eta are gehiago zenbat ordaintzen dizuten horregatik. Ondo irakurri dute. Txileko Altiuz enpresak langileen artean garraio jasangarria sustatzea erabaki du eta horregatik 150 peso ordaintzen ditu, 0,20 euro inguru, langileek lanera eta etxera bueltan egiten duten kilometro bakoitzeko. Neurri honekin ez da inor pobreziatik aterako denik, baina, zalantzarik gabe, beste hainbat enpresa kontzientzia ekologikoaren aldeko borrokan har dezaketen adibidea da.

Hala ere, ez da soilik bizikletaz garraiatzea lehenesten, oinez ibili nahi dutenak ere izan daitezkeelako neurri honen onuradun. Jatorrizko ideia Frantziako enpresa batzuetan sortu zen eta gizartean kontzientzia ekologikoaren aldeko borrokaz gain, langileen artean bizimodu osasuntsua sustatzen saiatzen da.

There are no comments yet.